

## ADI! ELKARTEAREN JARDUNALDIAK

# Ustel usaina dario alderdien sistemari

Erakunde eta alderdi politikoetako ustelkeria izan zuen hizpide Gasteizko ADI! Elkarreak antolatu dituen ustelkeriaren aurkako jardunaldien azken hitzaldiak. Urriaren 30ean, Europa Biltzar Etxean, Manuel Villoria eta Manuel Maroto unibertsitateko adituak ziren hizlariak, eta Zigor Zuzenbideko katedradun Ines Olaizolak gidatu zuen saioa. Ustelkeria egiturazkoa dela eta berarekin amaitzea borondate kontua dela frogatua geratu zen saioan. Baita ere herritarren presioak soilik alda dezakeela egoera.

 ZIGOR OLEAGA  DOS POR DOS

**M**anuel Villoria Mendieta Zientzia Politikoetako eta Administrazio-ko katedraduna da. Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitateko Gobernantza Onaren Behatokia zuzentzen du, eta Transparency International antolakundeko kide da, besteak beste.

## USTELKERIA, HORREN PERTZEPZIOA ETA GOBERNANTZA

“Zenbat ustelkeria dago Espainian?”, galdetu zuen Villoriak. Datu judizialekin erantzun nahi izan zion galderari: 2015eko azken sei hilabeteen 700 pertsona baino gehiago zeuden ustelkeriagatik inputatuta Espainiako Erresumako epaitegietan; 2019ko lehen sei hilabeteen, aldiz, 52. “Ematen du arrakasta izaten ari garela ustelkeriaren aurkako borrokan”, ondorioztatu zuen. Azken hamarkadan ustelkeria orokortua dagoela uste duten pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora, ordea, hainbat ikerketekin frogatu zuenez.

“Zer axola du pertzepzioak, datu objektiboak onak badira?”, jarraitu zuen hausnartzen Villoriak. Pertzepzioak on-

torioak ditu sistema demokratikoaren “zilegitasunaren eta gobernantzaren” alorrean, eta, ondorioz, “bizitza sozial eta politikoari” eragiten dio. 2006an alderdi politikoengan konfiantza zuten espainiarren portzentajea %31koa zen, 2018an %8koa. Parlamentuan biztanleriaren %41ak zuen konfiantza 2006an, 2018rako berriz, %14ak. Ustelkeriaren pertzepzio altua –eta ustez faltsua– eta sistema demokratikoaren deslegitimazioa eskutik doaz, Villoriaren esanetan.

Puntu ahul bat izan zuen oinarrian Villoriaren esopaketak: ustelkeria mailaren neurgailu nagusi eta “objektibo” bezala erabili zuen epaitegietan inputatutako pertsona kopurua. Baina botere judiziala urrun dago botere politikoarekiko burujabea izatetik. 2015ean hainbeste inputatu egoteak ustelkeriaren aurkako borroka zintzo bati erantzuten zion? Edo, aldiz, sinesgarritasun krisi nabarmenean zegoen sistema demokratikoari sinesgarritasuna bueltatzea zen xede bakarra? Hain zuzen ere 2015ean onartu zuen Espainiako Kongresuak “erregenerazio demokratikora-

ko” proiektu arranditsua, besteak beste ustelkeriaren aurka borrokatzeko helburua omen zuena. Villoriak emandako datuen arabera, sistemaren legitimitate eza 2015ean eta gaur egun antzekoa da. Baina bada alde nabarmen bat: 2011n eztanda egin zuen legitimitate krisia jarrera aktibo eraldatzaileetan gorpuztu zen; egungoa pasiboa da –erreakzionarioa ez bada–.

## ALDERDI USTELAREN JAIOTZE USTELA

Gasteizen ustelkeriaz aritzeko abizen jostalaria daukan gonbidatu batek itxi zuen jardunaldia: Manuel Maroto Calatayud zuzenbide penaleko irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Espainiako alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketaren inguruan dagoen “aditu nagusi” bezala aurkeztu zuen Olaizolak. Suabe eta modu pausatuan adierazi arren, alderdien sistema bera dardarka utzi zuen.

Sistema politikoaren legitimitate eza handia dela esan zuen Marotok, erantzukizun nagusia alderdiei egotziz. “Al-





derdiek beti egin dute porrot” legitimitate hori sortzeko orduan, eta horren zergati garrantzitsuenetarikoen artean haien finantzaketa modua aipatu zuen.

Ustelkeriaren jatorrizko bekatua finantzazioan eta jaiotza unean bertan kokatu zuen Marotok. Trantsizio garaian sortu ziren “bat-batean” alderdi gehienak, apenas oinarri sozialik gabe. Europan ohikoa den militanteen kuoten bidezko finantzaziorako aukerarik gabe, beraz. Dirua lortzeko zer iturri erabili zituzten alderdiek?

Bata, atzerria –ilegala zena eta dena– trantsizio garaian PSOE edo AP alderdiek Alemaniako hainbat fundazioren dirua jaso zutela gogoratu zuen Marotok, adibide gisara. Bigarrena, subentzio publikoak: gaur egun ere, deklaraturako diru-sarreraren %85-90ek jatorri publikoa du. Zalantza egin zuen Marotok horren egokitasunaren inguruan. Interes pribatuekiko menpekotasuna ekiditeko balio lezake. Baina “alderdiak euren oinarrietatik independizatzea” ere ekartzen du, barne demokrazia kaltetuz. Hirugarrenik, bankuen maileguak: 80ko hamarka-

darako alderdiak oso zorpetuta zeuden. UCD zorrei aurre egin ezinagatik desegin zen, PSOEek Filesa ustelkeria sarea zorrei aurre egiteko antolatu zuen –ohikoagoa da bankuek alderdiei zorrak barkatzea–.

### **INVENTA LEGE, INVENTA FRAUDE**

Finantzaketa iturri horiek indarrean diraute, Marotoren arabera. Arazoak Trantsiziotik daude identifikatuta, baina aurre egiteko aldaketak “txarto eta ezin geldoago” egin dira. Lehendabiziko urteetan arau eza izan zen arau, “finantzaketaren garai basa”. Alderdien finantzaketaren inguruko legea 1987koa da, “erabat eskasa eta ia ez aplikatzeko pentsatua”. Eskandalu ugari tarteko ere, ez zen neurri berririk planteatu 2007. urtera arte. 2007-2015 epean alderdien ustelkeriaren inguruko “eztanda legegilea” gertatu zen: “Krisi ekonomikoak sistema politikoaren legitimitate krisia sortzearekin lotuta dago. 78tik lehendabizikoz, alderdien sistema arriskuan egon zen”.

Neurrien artean izar mediatikoak 2015ekoak izan ziren, aipaturako “erre-generazio demokratikorako” proiektu-

tuaren barnean. Bi izan ziren erabaki nagusiak. Bata, enpresen donazioak debekatzea: “Ordurako donazioen bidea guztiz minoritarioa zen, alderdiei ez zien galerarik ekartzen”. Bestea, finantzaketa ilegala delitu izendatzea. Baina kanpoan edo zehaztugabe geratzen dira praktika ugari: “Adibidez, delitu izateko 500.000 eurotik gorako iruzurra izan behar du, eta apenas dago horrelakorik; edo delitua da enpresa batek alderdi bati 100 euro ematea donazioan, baina ez 10 milioi euro alderdiaren fundazioari”.

### **HERRITARRAK ESPERANTZA BAKAR**

“Aplikatzeko oso zailak diren legeak egin dira, zer edo zer egiten ari denaren mezua bidaltzen den bitartean. Nahita iruzurtiak dira neurri horiek”. Ba al da esperantzarako motiborik? “Alde ona da aspaldi identifikatuta daudela aldatu behar diren gauzak. Zaila dena da aukera politikoa irekitzea”. Aukera politikoak ez dira berez irekitzen: 2011-2015 urteen artean egin zuten bezala, herritarren borrorak soilik zabaldu ditzake. ●